

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 515/2017 Foru Agindua, irailaren 26a, 290 eredua onartzen duena zenbait pertsona estatubatuarren finantza kontuen urteko informazio aitortpena

Espainiako Erresumaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko akordioa, nazioarteko zerga arauak hobeto betetzeko eta atzerriko kontuen zerga eginbeharrak betetzeari buruzko EBetako legea aplikatzeko, Madrilen 2013ko maiatzaren 14an sinatu zen eta haren helburua nazioarteko zerga iruzurraren kontrako borrokan aurrera egitea da. Bertan, zerga helburuekin informazioa automatikoki trukatzeko sistema bat ezartzen da, bi estatuen elkarrekiko laguntzaren eremuan.

Akordio horretan, Espainiako finantza erakundeen eginbehar hauek ezartzen dira: alde batetik, Estatu Batuetako egoiliar edo herritar diren pertsona edo entitateek titulartasuna edo kontrola daukaten kontuak identifikatzea eta, beste aldetik, urtero finantza kontu horien gaineko informazioa ematea Espainiako zerga administrazioari. Akordioa, gainera, bere izaera juridikoarengatik, zuzenean loteslea eta nahitaez bete beharrekoa da eginbeharrak betetzea dakarkien subjektuentzat.

Akordioaren aplikazioa, haren testuaren arabera, pausoz pauso egiten da, zerga administrazioari informazioa ematera behartuta dauden subjektuentzat. Akordioan aipatzen den informazio guztiaren trukea lehenengo aldiz 2017rako aurreikusita dago, 2016an informazioa jakinarazi beharri loturik dauden finantza kontuei dagokienez.

Arabako Lurralde Historikoan, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorak, hogeita bigarren xedapen gehigarrian, finantza erakundeen eginbehar hauek ezartzen ditu: zenbait finantza konturen titularren egoitza identifikatzea eta horien gaineko informazioa ematea zerga administrazioari, elkarrekiko laguntzaren eremuan.

Hogeita bigarren xedapen gehigarri horretako 5. eta 6. zerbakiak aplikagarriak dira finantza kontuekin lotutako informazio eta arreta egokiko betebeharrak dagokienez, bat etorritik nazioarteko zerga arauak hobeto betetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act-FATCA izeneko ezartzeko Ameriketako Estatu Batuen eta Espainiaren arteko akordioan xedatutakoarekin.

Zergak ikuskatzeko Zerbitzuak horren inguruan emandako txostenari atxiki zaio.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 290 ereduaren onartpena

Onartzen da 290 eredua, (zenbait pertsona estatubatuarren finantza kontuen urteko informazio aitortpena).

2. artikulua. 290 eredua aurkeztera behartuak

290 eredua aurkeztu behar dute uztailaren 14ko HAP/1136/2014 Aginduaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera behartuta dauden subjektuek, baldin eta Arabako Lurralde Historikoko zerga administrazioari esleiturik badago haiek egiten dituzten jarduerak ikuskatzeko eskumena.

3. artikulua. 290 eredua aurkezteko modua

290 eredua urtero aurkeztu beharko da, foru agindu honen 4. artikuluan aurreikusitako prozeduaren arabera mezu informatiko bat bidaliz. Mezu horrek, gutxienez, ekainaren 30eko HAP/1136/2014 Aginduaren eranskinean adierazten den edukia izan beharko du, kontuan hartuz akordioaren 3. artikuluko 3. idatz zatiko a) letran eta 4. idatz zatian eta HAP/1136/2014 Agindu horren 4. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoa.

4. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua

Zenbait pertsona estatubatuarren finantza kontuen informazio aitortpena datzan mezu informatikoen formatua eta diseinua, baita horren edukia (ekainaren 14ko HAP/1136/2014 Aginduaren eranskinean zehazten dena) osatzen duten elementuak ere, unean unean Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren egoitza elektronikoan www.agenciatributaria.es jasota daudenak izango dira.

5. artikulua. 290 eredua aurkezteko epea

290 ereduaren aurkezpena urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean egin beharko da, aurreko azken urteari buruzko finantza informazioari dagokienez.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2016ari buruzko informazio aitortpenaren aurkezpena 2017ko urtarrilaren 1etik urriaren 15era bitartean egingo da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta 2016ari buruzko aitortpenak aurkezteko aplikatuko da lehenengo aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 26a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua
JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria
TERESA VIGURI MARTÍNEZ